

Kontratuen erregistroa 2024an

K O N T R A T A T U T A K O P E R T S O N A K

2023an 275.240 pertsona kontratatu dira, joan den urtean baino 7 gehiago..

• S E X U A

2024an 143.290 gizon eta 131.950 emakume kontratatu dira. Kontratutako gizonezkoen kopurua emakumeen kopurua baino handiagoa izan da ostera. Bilakaera ere gizonezkoena positiboagoa da, % 0,5 hazi baita kontratazioa emakumeen kasuan, berriz, % 0,5 murriztu da.

• A D I N A

Kontratutako pertsonen batez besteko adina 35,65 da, eta altuagoa da emakumezkoena (35,90) gizonezkoena baino (35,42). Kontratutako langile gazteenak, batez beste, profil teknikoetakoak –goi-mailakoak nahiz laguntzakoak– eta zerbitzuen arlokoak dira; horien batez besteko adina 34 urtetik beherakoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza-lanetan kontratatutakoak dira; batez beste 44 urteko adina dute. Lanaldi partzian kontratatutako pertsonak gainerakoak baino gazteagoak dira (34,66 vs 36,16). Kontratu mugagabeaz kontratatutako pertsonen multzoa helduagoa da aldi baterako kontratatuen aldean (35,92 urte eta 35,43 urte, hurrenez hurren).

• J A T O R R I A

2024an kontratatutako pertsonen % 21,1ek atzerriko nazionalitatea du; joan den urteko ehunekoa baino ia 0,7 puntu altuagoa. Kontratutako pertsona atzerritarren % 54,1ek Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 14,1ek Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, %10,1ek Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa % 7,8k Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde batekoa, % 7,8k Asiakoa eta % 7,4k Europako Erkidegoko herrialde batekoa. Pertsona atzerritarren batez besteko adina altuagoa da bertako pertsonen aldean (36,35 eta 35,46 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrika iparraldetik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,50 urte), eta Europako Erkidegoko ez den herrialde batetik heldutakoak zaharrenak (38,49 urte). Azken urtean, kontratatutako atzerritarren kopuruak % 2,6 egin du gora (+1.478 pertsona). Kontratazio-maila esanguratsua duten eremu geografikoen artean, gehien hazi direnak Latinoamerikatik etorritakoak dira, % 5,1eko hazkundearekin eta 1.445 pertsona gehiago kontratatuta. Aitzitik, murrizketarik handiena Europako Erkidegotik kanpoko pertsonen artean gertatu da, 279 pertsona gutxiagorekin eta % 5,7ko ehuneko-murrizketarekin.

• P R E S T A K U N T Z A

Kontratutako pertsonen % 41,7k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorezko hezkuntza amaitu du–, % 23k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 15,7k lanbide-heziketakoak, eta gainerako % 19,1ek unibertsitate-ikasketak. Hala urteko erreferentzian, unibertsitateko ikasketak dituztenen kolektiboak egin du behera gehien bai balio erlatibo zein absolutuetan, 1.526 pertsona gutxiagorekin eta % 2,8ko murrizketarekin.

Kontratuen erregistroa 2024an

K O N T R A T U E N K O P U R U A K

2024an 740.770 kontratazio izan dira EAEn, eta horietatik % 23 mugagabeak izan dira. Ehuneko hau 2023koa baino puntu 2 txikiagoa eta 2022koa baino 1,5 txikiagoa da; urte horretan, nabarmen hazi zen ehunekoa lan erreformaren ondorioz.

Kontratu mugagabea izan duten gizonen ehunekoa (% 25) emakumezkoena baino altuagoa da (% 21,1). Kontratazioa % 1,5 hazi da aurreko urtearekiko (10.624 kontratutu gehiago erregistratu dira).

• J A R D U E R A E K O N O M I K O A

Kontratu kopuru handiena izan duen jarduera ostalaritza izan da (kontratuen % 14,1). Ondoren osasun jarduerak (%12,9) eta manufaktura-industria (% 12,7) daude.

2024an, informazioa eta komunikazioa izan da kontratu-hazkunderik handiena izan duten jarduera, 22.354 kontratu gehiago izan baitira eta % 75,4 gehiago. Ondoren, jarduera artistikoak (+3.437, % 9,1 gehiago) eta ostalaritza (+3.383, % 3,4 gehiago) daude. Jaitsierarik handienak, aldiz, honako hauetan izan dira: administrazio-jardueretan (-6.968, % 8,8 gutxiago), manufaktura-industrian (-3.910, - % 4) eta garraioan (-3.033, -% 7).

• L A N B I D E A

Azken urtean kontratu gehien sortu dituzten lanbide-profilak zerbitzuetako kualifikatuen lanpostuak dira (% 31), eta, bigarren, kualifikaziorik gabekoak (% 24,6). Azken urte honetan, kontratazioak behera egin du lanbide-profil gehienetan. Azken urte honetan kontratazioak nabarmen egin du gora teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualen profilean, 17.140 kontratu gehiago sinatu baitira, % 16,7ko hazkundera. Aitzitik, balio absolutuetan gehien jaisttsi den profila ez-kualifikatuen da (-6.924, -% 3,7); balio erlatiboetan beherakada handiena lehen sektoreko kualifikatuetan gertatu da, % 14,4ko murrizketarekin (-450 kontratu).

• K O N T R A T A Z I O - M O T A

Kontratuen % 23 mugagabeak izan dira, % 25 gizonen artean eta % 21,1 emakumeen artean. Kontratu mugagabeak 15.495 gutxiago izan dira 2023arekin alderatuta (-%8,5), eta aldi baterakoak 26.569 gehiago (% 4,9 gehiago).

2024an sinatutako kontratuen % 35,2, lanaldi partzialekoak dira, ia erdia emakumeen kasuan (% 45,8), eta ia 4tik 1 gizonen kasuan (% 24,2). Kontratazio mota horren arazorik handiena da gehienbat nahigabekoa izaten dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa.

Hauek dira lanaldi partzialeko kontratuen ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 63,5), administrazio-jarduerak (% 49) eta etxeetako jarduerak (% 47,8). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 54,4), eta gutxien nabarmentzen direnak lehen sektoreko langileen kolektiboa (% 5) eta industriako langile kualifikatuen kolektiboa (% 9,8).

Kontratuen erregistroa 2024an

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen artean, sinatutako kontratuen lanpostuen % 20,6a Araban dago, % 49,1a Bizkaian eta gainerako % 30,2a Gipuzkoan. .

Aurten, bi lurralde historikoetan egin du gora kontratazioak: Araban % 5 eta Bizkaian % 2,2 (7.678 kontratu gehiago). Gipuzkoan, aldiz, % 1,9 kontratu gutxiago sinatu dira, 4.316 gutxiago

• B E S T E R E N Z E R B I T Z U A N

2024an sinatutako kontratuen % 24,3 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 32,1 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 16,5 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko urtearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 4,8 murriztu dira.

2024ko kontratu mugagabeen metatua

